

ETXEAN EGITEKO JARDUERA



Ibaia

Haur hezkuntzako 2. eta 3. mailak

1. “IBAIAREN HISTORIA”

Entzun eta gozatu ibaiaren historia (esteka honetan entzun dezakezu edo, nahi izanez gero irakurri):

<http://educacionambiental.pamplona.es/eu/hezkuntza-komunitatea/online-jarduerak/>

“Bazen behin ipuin bat. Eta ipuin horren erdian, ibai bat.

Ibai oneratu berria zen, mardula eta osasuntsua (goiz-goizetik usaintsua). Zer dela eta gaixotua? Nork sendatua? Pertsona bakar batek? Heroi batek? Talde batek?

Sar zaitez ipuinaren ur-ibilguan eta ikus dezagun nora garamatzan...

Bazen behin ipuin bat, eta ipuinaren erdian, ibai bat.

Ibai horretan zebilen Lartaun, arraun eta arraun. Txiki-txikitatik atsegin zuen basora ihes egitea, eta han etzatea, ibai-ertzean, urak eta lurak duten jolasgunean. Bertan ikasi zuen iluntasuna argitsua dela, are, distiratsua, eta txoriek antzina-antzinako hitzak idazten zituztela zeruan, hegan, munduko ipuin guztien sorlekuan. Lartaunek orduak eta orduak eman zituen bertan, landareez eta ipuinez ikasten, baina azkenean piraguista egin zen, egia esatera lehentasun ez zuen arren.

Apirileko udaberri-goiz berde batean Lartaun goiz jaiki, piragua hartu eta arraunean egin zuen ondotoxo ezagutzen zuen ur-bilduan barna. Arraun eta arraun, lokatz-hondartza zuen bihurtune batera iritsi zen, eta zertxobait gorago, Magdalenako baratzean, Elena nekazaria ikusi zuen lanean.

Goiz jaikitzen da Elena... hiriko emakumerik atseginena.

— Egun on, Elena! —mintzatu zen Lartaun, arraun eta arraun.

— Egun on! —Elenak erantzun hari, lanean buru-belarri.

— Zer ari zara landatzen?

— Urazak. Baratzeko lurrari, eguzkiaren argiari eta ibaiaren urari esker, hemendik zenbait astera, merkatuan saltzeko eta entsalada goxoak egiteko prest izanen ditugu.

Agur esan eta Lartaun, arraun eta arraun, ibaian behera joan zen. Geroxeago, belar-bazter batean, Dabid artzainarekin egin zuen topo, ardi eta behorrei edatekoa ematen ari zitzaizela. Dabidek heldutan erabaki zuen artzain izatea,

ordenagailuaz nazkatuta; poz-pezik zegoen orain, azkenean bazuen traktorea, eta gorria zen haren kolorea.

— Egun on, Dabid! —mintzatu zen Lartaun, arraun eta arraun.

— Egun on! —erantzun zuen Dabid artzainak.

— Nola daramazu goiza?

— Ba hementxe, ibai-ertzean, ederki: fresko-fresko egoten da eta abereek badute, erruz ere, bazka uxterra, itzala eta ura.

Ur-lasterrak lagun, agur esan zion Lartaunek eta berriro ekin zion poliki nabigatzeari. Jende ugari gurutzatzen zuen zubi gainean topatu zuen Teresa alkatesa.

— Egun on, Teresa! —mintzatu zen Lartaun, arraun eta arraun.

— Egun on, Lartaun!

— Nora zoaz, Teresa?

— Arrotxapera, amonari bisita egitera. Hemendik zubitik bada ere, emanen dizut berririk: amonak eskuz garbitzen zituen arropak hemen, ibai-ertzean, urak eta lurak duten jolasgunean.

— ¡Uau! Zoragarria! Mila esker nirekin partekatzeagatik, Teresa! —esan zuen Lartaunek, motel-motel nabigatzeari ekinez.

Gau hartan, horrenbeste “arraun eta arraun”, neka-neka eginda zegoen Lartaun, eta ikusitako guztiarekin pozik egin zuen lo, nahiz eta euria teilatuan zebilen jo eta jo.

Baina biharamunean... Ene! Ur-goraldia zela eta, ibai-ertzak plastikoz, poltsaz eta ontziz beterik zeuden, batez ere Lartaunen piragua-paseoen abialekuan. Elenak ikusi zuen hori, Magdalenatik; Dabidek ere, atsekabeturik, eta Teresak, afaldu aurretik. Tristeza zen oso. Hain tristeza, ezen kezkatu baitziren. Laurok elkarrekin bidaia bat antolatu zuten ibaian behera eta ibaian gora, bisitatzen, galdetzen, ikertzen.

Elkarrekin, entzun eta mintzatu. Mintzatu eta entzun. Eta azkenean zera ondorioztatu zuten: euriak arrastaka eraman zituen ibairaino kale, plaza eta landetako plastiko guztiak; ibaia garbitu behar zen, bai, baina haratago ere joan behar zuten, arraun eta arraun, baina elkar hartuta.

Bada, ibaia garbitzeaz gain, maiatzeko goiz batean, jo eta ke lanean, antolatu egin ziren:

Elenak, Magdalenan, baratzean plastikoak erabiltzeari utzi zion. Eta urazen zein beste barazkien hondarrak Dabidi oparitu zizkion, ardientzat. Trukean,

Dabid artzainak Elenari oparitu zion abereek sortzen zuten ongarria, ondoko baratzean erabil zezan eta horrela, kontrolatu gabeko isuriak ekidin.

Teresa alkatesak ordenantza bat, arau bat, idatzi zuen, “ez sartu hatzak sudur-zuloetan” edo “ez jolastu janariarekin” tankerako bat; baina Teresa alkatesaren ordenantzan ibaia babestu behar zen, eta plastiko gutxiago erabili.

Eta Lartaun, arraun eta arraun, bisita gidatuak egiten ibiltzen zen, jendeak ibaia ezagutu eta errespetatzeko, ura behar bezala erabiltzeko eta kalean zaborrik ez botatzeko.

Eta horrela, arraun eta arraun, elkarrekin lan eta lan, ibaia zuten sendatu eta oneratu.

Eta hala bazan edo ez bazan, orain ibaia dugu sasoiari.

2. IBAI-MISIOA

➤ MISIOA

Ur-goraldia dela-eta, zaborra pilatu da Lartaunek piraguan egiten dituen arraun-paseoen abialekuan, arrain eta txoriz beteriko istilean. Arrain eta txori horiek salbatu behar ditugu, ez daitezen intoxicatu, eta ondoren, ibaia garbitu.

- Lehenik eta behin, animaliak aterako ditugu bertatik, ahal dela, banan-banan. Orduan bai, ibaia garbitzeari ekinen diogu. Eta garbitutakoan, animaliak haien ingurunera itzuliko ditugu.
- Helburu nagusia sortuz jolastea da, eta, bide batez, ariketa fisiko pixka bat egitea. Ez da lehiaketa bat.
- Honakoa proposamen bat baino ez da. Moldatu dezakezue, erabilgarri duzuen espazioaren arabera, zuen sormenarekin bat, etab.

➤ ZURE IBAIA ERAIKI

- Pentsatu etxean dituzuen elementuen artean zeintzuk izan daitezkeen erabilgarriak ibilbide bat osatzeko zenbait gelatan barna, betiere, jakina, segurtasuna aintzat harturik.
- Adibide gisa, sofa arraun egiteko piragua bihur dezakegu; kuxinak edo alfonbra txikiak batetik bestera salto egiteko harriak izan daitezke; lerrokatutako aulkiak, zubi bat, edo, aulkiak behealdetik zeharkatuz gero, ibai-ertzetako sasitza izan daitezke, katamarka zeharkatu beharrekoak.
- Erabiltzen ditugun elementuak eta gelak adin bakoitzak duen mugikortasun-gaitasunera moldatu behar dira, eta, esan bezala, arriskuak, kolpeak, erorikoak eta abar prebenitu eta ekidin, beti.
- Ideialena litzateke ur-bildua etxeko mutur batean egotea eta ibilguaren hasiera beste batean (betiere inori traba egin gabe).

➤ ZABORRA, TXORIAK ETA ARRAINAK

Zaborra egiteko, paper erabiliez egindako bolak erabil ditzakegu, edo zerbait landuagoa egin nahi badugu, botila, ontzi eta halakoak marraztu eta moztu. Animalietarako, panpinak erabil ditzakegu, edo berrerabilitako paperean marraztu, koloreztatu eta moztutako txoriak eta arrainak.

Ur-bilduan sakabanatuko ditugu.

➤ JOLAS-ARAUAK

- Parte-hartzaileek ur-bilduaren kontrako muturretik ekinen diote ibilbideari.
- Bidean aurkitutako trabak gainditu beharko dituzte istilera iristeko, eta bertan, txoriak eta arrainak atera beharko dituzte lehenbizi, eta abialekura eraman.

Bertan “fauna-ospitalea” prestatu daiteke aurrez, ibaia garbitzen dugun bitartean animaliak artatzeko.

- Jolasa luzeagoa izan dadin nahi badugu, animaliak banan-banan salbatu eta garraiatu beharko dira.
- Behin animaliak aterata, gauza bera egingen dugu zaborrarekin.
- Azkenik, behin ibaia garbituta, istilera itzuliko ditugu animaliak.

➤ **BESTE IDEIA BATZUK**

- Mapa
Zure ibaia eraiki ostean, mapa bat marraztu daiteke, hura osatzen duten elementu guztiak bertan islaturik. Bidaliguzu mapa educacionambiental@pamplona.es-era zabal dezagun!
- Fauna-ospitaleak
Badakizu Iruña ondoan basa-animaliendako ospitale bat dagoela?
Iaz Ilundaingo Basa-fauna Sendatzeko Zentroaren 30. urtebetetzea izan zen:
 - <https://www.youtube.com/watch?v=e6WpKjpEmE4>

3. URA ETXEAN




Ura ezagutu eta arduraz erabiltzea garrantzitsua da. Hori eginda ibaia ere zaintzen dugulako.

Nola edo hala, etxean darabilgun ura ibai batetik dator.

- Nondik sartzen da ura zure etxera?
 Nondik iristen da? Zer gelatara sartzen da?
 Egin ibilbidea etxean barna, eta hartu oharrak honako elementu hauen gainean:

	BAI / EZ NON?
	BAI / EZ NON?
	BAI / EZ NON?
BESTE BATZUK	BAI / EZ NON?

- Nolakoa da zure etxera iristen den ura?
 Kontu hauei erreparatu: Zer kolore dauka? Ikus daiteke uretan zehar? Zer usain dario? Zer zapore dauka? Haren soinua imitatu dezakezu? Berdina al da urak txorrotan, euria ari duenean edo ibaian duen soinua?

	<p>Zer kolore dauka? Ikus daiteke uretan zehar?</p>
	<p>Zer usain dario?</p>
	<p>Haren soinua imitatu dezakezu? Berdina al da urak txorrotan, euria ari duenean edo ibaian duen soinua?</p>
<p>BESTE BATZUK</p>	
<p>BESTE BATZUK</p>	

- Nolakoa da zure etxean dagoen ura?
 Likidoa da beti ala badago etxean beste forma batean?

	BAI / EZ NON?
	BAI / EZ NON?
	BAI / EZ NON?
BESTE BATZUK	BAI / EZ NON?

- Zertarako erabiltzen dugu ura etxean?
Aipatu erabilera guztiak.
Trabatzen zarenean, edo amaitzen duzunean, lagungarria izan daiteke zerrenda osatzeko etxea gelaz gela arakatzea, bakoitzean dagoenari erreparatuta eta funtzionatzeko (edo garbiketarako) ura behar dutenetan arreta jarrita.
- Ikusi nola ateratzen den ura zure etxetik.
Nondik irteten da? Etxera iritsi zenean bezala dago?
Zer du orain lehen ez zuena? Kontuz!! Orain ezin da ukitu, batez ere bainugelan, komunean!

4. MEZUA HEDATZEN LAGUNDUKO DIGUZU?

Zure lanen bat partekatu nahi baduzu (marrazkiak, soinuak, argazkiak...), hona bidali ahal dizkiguzu: educacionambiental@pamplona.es. Eta nahi baduzu gure sare sozialetan partekatuko dugu.

ESKERRIK ASKO MEZUA HEDATZEN LAGUNTZEAGATIK!